

Arana Martijaren izena eramango du Udal liburutegi berriak

Euskaltzain emerituari omenaldi bat egitea ere adostu du Udalbatzak

Danel Lauzirika

Udalbatzak azken osoko bilkuran Pasealekuko eskoletan egingo duten liburutegi berriari Jose Antonio Arana Martija Udal Liburutegia izena jartzea onartu du.

Euskaltzain, musikagile eta bibliografo gernikarraren lana aitortzeko hiru puntuko mozioa aurkeztu zuen EAJko Udal taldeak eguazteneko bilkuran. EAJko Jesus Mari Barandikaren esanetan, gernikarrentzat Arana Martija luzaroan erreferentea, pertsona preziatua eta gustiz maitatua izan da. Hiru eskaeretan lehena liburutegiaren izendapenarena izan zen. EAE ezik, beste Udal talde guztiek proposamenaren alde bozkatu zuten, eta EAEko lau zinegotziak abstenitu egin ziren.

Idoia Fernandez EAEko bozeramalearen esanetan, Arana Martija Udal liburutegiaren izena eramateko pertsona egokia iruditzen zaigu. Egia da beste euskaltzain guztiak herrian dauden egituretan zehar present dauzkagula, eta Arana Martija ez.

Baliteke liburutegiaren izendapenerako proposamen gehiago iristea. Oraindik liburutegi a izendatzeko premia handirik ez dagoenez proposamenen bat iristen den ala ez jakiteko pixka bat itxarotea da gure asmoa, adierazi zuen Fernandezek. Beste alderdietako ordezkariak Jose Antonio Arana Martija Udal liburutegia izendapena behin betiko ezartzearen alde agertu ziren.

Omenaldia

Jose Mari Gorroño alkateak, bere aldetik, mozioa aurkeztu aurretik Arana Martijari baimena ez eskatzea leporatu zien EAJko kideei.

EAJk eskatuta, udalbatzak Arana Martijari omenaldia egitea adostu zuen. Izan ere, 2008an Arana Martija euskaltzain oso izendatu zutela 20 urte beteko dira. Horrez gain, datorren urteko uztailaren 28an Gernika-Lumon sarrera hitzaldia irakurri zuenetik 19 urte beteko dira. Hasieran EAJ-k omenaldi instituzionala eta omenaldi herrikoia bereiztea proposatu bazuen ere, alderdiek omenaldi biak batera egitea adostu zuten.